



GAUR UXOLA SARIAK 2010 GEHIGARRI BEREZIA

Gaur eta bihar Lehen Hezkuntzako lanak argitaratuko ditugu; ekainaren 12an eta 13an DBHko ikasleenak >



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Larunbata
2010-06-05

VIII. URTEA 2.019. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ezker Abertzaleak, Eusko Alkartasunak, Ezker Batuak eta Aralarrek prentsaurrekoa eskaini zuten atzo. ASIER IMAZ

TOLOSAKO UDALARI SENTENTZIA BETE DEZALA ESKATU DIOTE

'VOIHT-GOROSTIDI AUZIA' Lau alderdik bat eginik mozioa aurkeztu dute udaletxean; gaia aztertzeko bilkura berezi bat eskatu dute z



ENERITZ MAIZ

JOSE MARI ZULAIKA 'PASKUALTXO' HERRI KIROLARIA

«Gustura jaso nuen berria; herri kirola beti izan dut maitea»

BEDAIO Omenaldia egingo diote bihar Zizurkilgo Aundinibar baserriko zelaietan, 11:30ean s

Erosketa Berdearen alde eskualdeko 17 udalerrri elkartu dira

INGURUMENA Erosketa eta kontratazio publiko jasagarria bultzatu asmoz hitzarmena sinatu dute 7



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



ziklo guztiak
euskaraz

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 31etik EKAINAREN 11ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

➤ Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak

➤ Mekanizazioa

➤ Soldadura eta Galdaragintza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: TOLOSALDEA idatziz 5533ra

'Voith-Gorostidi auzia' ren inguruan bat egin dute Tolosako lau alderdik

Azpiegiturak » Ezker Abertzaleak, EAK, Aralarrek eta EBk mozio bat adostez gain, bilkura berezia eskatu dute.

ERREDAKZIOA

Tolosako Voith-Gorostidi eremuko arau subsidiarioak nuloak edo ez-legezkoak direla adierazi zuen joan den martxoaren 10ean EAEko Auzitegi Gorenak. Erabaki horrek Arau Ordezkatzaileen aldeketa indargabetzeaz gain, Tolosako Hirigintza Antolaketarako Plan Orokorrak Voith-Gorostidi eremuko ordenamendu xehatuaz ari delarik, norma aldeketa ordenamendu xehatuari egiten dio erreferentzia.

Hori azaldu zuten behintzat atzo Tolosako Ezker Abertzaleak, Eusko Alkartasunak, Aralarrek eta Ezker Batuak.

Guztiak elkarrekin burutu zuten prentsaurrekoan, Tolosako Kultur Etxean, «norma aldeketa indargabetzean, Voith-Gorostidiko eremua ordenamendu xehatu gabe utzi du, eta ondorioz, berriro idatzi beharko litzateke, 2/2006 legean arauturiko baldintzetara egokituz» azaldu zuten.



Iñaki Irazabalbeitia (Aralar), Onintza Lasa (EA), Antton Izagirre (Ezker Abertzalea) eta Enrique Torquemada (EB). A.I.

Gipuzkoako Foru Aldundiari, Udalari eta Bildarratz deia

Mozioa ere aurkeztu dute udal taldeek, eta bertan hainbat eskaera egiten dizkiote Udalari eta Jokin Bildarratz alkateari. Hala, «eremuaren eraikigarritasunaz Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi

Gorenak agindu duena ahalbideratzeko, dei egiten diogu Jokin Bildarratz alkateari. Oraindik eraikitzen hasi ez diren eremuetan eraikitzeak aukera eten dezan ordenamendu xehatu berria egiten ez den bitartean».

Era berean, «Tolosako Alkateari,

legeak aipatzen dituen bi hilabertetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Epaitegi Gorenak eman duen 246/2010 sententzia bete ahal izateko, eztabaida eta onarpen prozedura tekniko eta juridikoak martxan jar ditzan eskatu» zioten.

Udalaren «parte hartze zuzenaz» esleitu diren etxebizitza babetu eta kontzertatu kopuru zabalari aintzat hartuz, Tolosako Udalari eskatzen diote «bere gain har dezala Voith-Gorostidiko eremuan etxebizitzaren jabe izateko aukera izan duten herritar guztien etxebizitza eskubideak defendatzeko konpromisoa».

Amaitzeko, Ezker Abertzaleak, Aralarrek, EAK eta EBk dei egiten diote Gipuzkoako Foru Aldundiari eta eremuko Hitzarmen Batzarriari, «dagokien arduraren bere gain hartu eta aipaturiko helburuak lortzeko urratsak eman ditzaten» eskatuz.

Gai bakarra aztertuko den bilkura berezia eskatu dute

Aipatu mozioa atzo goizean aurkeztu zuten Tolosako Udalean. Beraz eztabaidatzeko, ezohiko bilkura egitea ere eskatu zuten Onintza Lasa eta Enrique Torquemada, EA eta EBren bozeramaleak: «Zera adierazten dugu: Tolosako Aralar, Eusko Alkartasuna, Ezker Abertzalea eta Ezker Batua-Berdeak talde politikoek elkarrekin mozio bat aurkeztu dutela Voith-Gorostidi eremuaren inguruan EAEko Epaitegi Nagusiak eman duen epaia udalaren osoko bilkura eztabaidatuta izan dadin. Horren harian honokoa eskatzen dugu: Aipatu mozioa eztabaidatzeko berariazko Ohiz Kanpoko Osoko Bilkura dei dadin legeak eskaintzen duen eperik laburrenaren».

Gaztelu, Aizpurua II.a eta Zeberio II.a Buruz buruko Txapelketan egongo dira

Erremontea » Lehen partidak gaur jokatuko dituzte. Gaztelu eta Aizpurua II.a bihar irtengo dira lehiara.

ASIER IMAZ

Duela hilabete batzuk erremontearen etorkizuna oso ilun ikusten zen. Iaz jokatu zen XXVII. Banakako Txapelketa, azkena ote zen

galduetuen ere izan zen. Oriamendi enpresaren etorrerak ordea aurpegia aldatu dio erremonteari. Jarrapena ziurtatzeaz gain, ideia berri horiek XXVIII. Banakako Txapelketan islatu nahi izan ditu.

Pilotari guztiak txapelaren bila Aurtengo Buruz buruko Txapelketan Oriamendiko pilotari guztiak hartuko dute parte, hau da, 31k. Pilotaleku luzean jokatuko dira partidak, Euskal Jai Berrin eta

Galarretan. Azken hau berritu ostean, hilaren amaieran zabalduko dute berriro ere.

Txapelketa bi zatitan banatu dute arduradunek. Lehenengoan, 25 pilotarik hartuko dute parte. Partida bakarrera jokatuko dituzte lehiak eta irabazleek aurrera egin-

go duten bezala, galtzaileak kanpoan geldituko dira. Lehen norgehiagokak gaur eta bihar jokatuko dira. Gaztelu leizarrak eta Aizpurua II.a tolosarrak bihar jokatuko dituzte euren partidak.

Bigarren zatian izen handiko pilotariak sartuko dira jokoan. Za-

lantzik gabe hor egongo da iazko azpitxapelduna, Patxi Zeberio elduaindarra. 30 pilotari hauetatik bost bakarrik iritsiko dira finalerdietara. Iazko txapelduna, Urrutia II.a, izango da seigarren partaidea. Finalaren atarian beraz, bi multzotan banatuko dituzte pilotariak. Urrutia II.a multzo batean joango da eta Zeberio II.a bestean.

Buruz buruko erremonte Txapelketaren final handia irailaren 4an jokatzea espero dute Oriamendiko arduradunek. Pilotalekua oraindik zehazteke dago.



Buruz buruko Txapelketan Oriamendiko pilotari guztiak hartuko dute parte. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskal Herria Kantuz! Musun baserriaren alde

Leitza» Gaur 18:00etan hasiko da elkartasun jaialdia. Kantari ezagunak izango dira oholtza gainean.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Euskal Herriko musikari ezagunak, Leitzako plazan dute gaur hitzordua 18:00etan.

Musun baserriaren aldeko kontzertua izango da. Musikarien artean; Pantxoa eta Peio, Erramun Martikorena, Patxi Saiz, Thierry Biskary, Jaione Olazabal eta Jon Gurrutxaga izango dira taula gainean. Hauez gain, Doneztebeko Mahai Inguru taldea eta Leitzako Jeiki Abesbatza eta Aurrearako dantzariak ere parte hartuko dute.

Euskal kanta ezagunak

Baigorri bizi den artzainaren ahots gozoa. Pantxoa eta Peioren, errepertorio zabaleko doinuak: *Lepoan hartu ta segi aurrera, Itziarren semea, Bagare...* Patxi Saiz abeslari getariarraren pop eta jazz estiloko abestiak. Thierry Biskary, abeslari nafarra, perkusioa eta txirula lagun eta Jaione Olazabal eta Jon Gurrutxaga bikote, aresoarren ahotsek borobilduko dute



Musun baserriaren aldeko jaian, Euskal Herriko abeslari ezagunak hartuko dute parte. HITZA

kontzertua. Leitzako plazan elkartuko direnek, Euskal kantagintzako abesti aski ezagunekin gozatuko dituzte belarriak.

Ipar eta hegoaldeko abeslariak musu-truk elkarlanean

Kontuan hartzekoa da, abeslari guztiak musu-truk etorriko direla

Euskal Herriko txoko ezberdinetatik; ipar eta hego, Musun baserriaren alde elkartasun kontzertuan parte hartuz.

Sarreraren prezioa 15 eurokoa izango da. Gaur bertan, Leitzako Plazan erosteko aukera izango da. Aldez aurretik erosi nahi izanez gero: Leitza, Maimur eta Astiz li-

buru dendatan eta Tolosan Raku tabernan eskuratu daitezke txartelak. Baita, Elizondo, Lakuntza, Doneztebe eta Iruñean ere.

1.500 pertsona espero dituzte gaur arratsaldeko ekitaldian. «Euskal Herrian aski ezagunak diren kantariak dira eta jendea Leitza hurbilduko dela uste dugu.

Prezioa ere egokia dela uste dugu» aipatu du Jon Arangoa, kultura zinegotziak.

Auzotarrak eta herritarrak elkarlanean

Aurtengo otsailaren 28an, erren zen Musun baserria. Suteak sortutako kalteak ordaintzeko, «auzotarrak eta herritarrak erakutsitako elkartasun keinuak ikaragarriak» izan direla azaldu dute antolatzaileek.

Maiatzaren 13an izan zen lehenengoa ekitaldia. Herri kirol jaialdia. Leitza kirolarien harrobia izanik, parte hartzaile asko herritarrak zirelarik. Harri jasotzen, Iñaki Perurena, Inaxio semea eta Migeltxo Saralegi. Aizkoran, Jon Rekondo, Arkaitz Olano, Eneko Saralegi, Xanti Olano eta Xabier Mindegia aritu ziren. Segar erakustaldi berezia eta lasterkariak ere tarteko.

Kultur Aroaren baitan, bihar organo emanaldia eskainiko dute elizan, Raul del Tororen ikasleek.

Ekainaren 11ean, Jakoba Recondok *Sagarra eta sagastia* hitzaldia eskainiko du. Igandean, II. Sagardo Egunarekin emanango diote amaiera, Kultur Aroari. Herriko plazan izango da hitzordua arratsaldean.



Maila igotzeko aukera Intxurrek

ALEGIA» Igandean, etxean jokatu dute alegiarrek, Donostiako Lehen-gokoak taldearen aurka. Joaneke partidari, 0-2 irabazi zuten eta igandean markagailua alde jartzen badute, Ohorezko Erregional mailara igotzeko aukerak dituzte. Beti ere, goiko mailan jokatzeko duten partidari arabekoa izango da igotzeko aukera. Partida 17:00tan izango da. A.B

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** AIXAM markakako autoa salgai. Oso egoera onean dago. 2000 km. 4500 euro. Interesatuak deitu 605 75 70 96 telefonora, arratsaldean, 15:00etatik aurrera.

ALOKAIRUAN

■ **Autokarabana.** Familia batek autokarabana alokatu nahi du, uz-

tailaren 10etik 24era (gutxi gora behera). Interesatuak 675713073 telefono zenbakira deitu behar dute.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Amezketako jabetze batek zerbitzaria behar du asteburuetan lan egiteko. Interesatuak 605727730 telefono zenbakira deitu behar dute.



I. Sagardo Dastatze Txapelketa

ALBIZTUR» I. Sagardo Dastatze eta Txapelketa egin zuten atzo Albizturren. Bildutakoek, etnologo baten laguntza izan zuten. Honek, sagardoaren ezaugarriak aztertzen erakutsi zien. Ordu t'erdiko ikastaroa jaso

zuten, Ostaturko arkupean bildu zirenek. Bideo emanaldi batekin osatu zutelarik, sagardorai buruz jakin beharrekoa. Amaieran, sagardoak utzitako hutsuena, pintxoekin bete zuten. A.B

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

E Elkarrizketa

JESUS ARREGI > Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuko zuzendaria



Gorka Igartuak hartuko du orain arteko zuzendari izan den Jesus Arregiren lekukoa. I.T.

«Gure ikastetxea da bakarria ziklo industrialetan, eremu zabalean»

Hezkuntza » Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak hainbat berrikuntza ditu ikasturte berrirako, Moodle plataforma, esaterako.

INIGO TERRADILLOS

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak ireki berri du matriculatzeko epea. Jesus Arregi bertako zuzendariak azaldu ditu martxan jarri berri dituzten proiektuak, eta hurrengo ikasturterako dituzten asmoak eta helburuak.

Zer eskaintzen du, edo zer du berezi Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak?

Ziklo industrialetan, batez ere, gure ikastetxea da bakarria eremu zabal batean. Goierritik hasi eta Andoainera ziklo guztiak eskaintzen dituen bakarria dela esan daiteke. Ziklo guztiak euskaraz ematen ditugu, gainera.

Zenbat ikasle dituzue?

350 hasierako ikasle ditugu egun. Hazkunde handia izan dugu azken urtean, %25ekoa, hain zuzen. Langabeziaren igoerarengatik igo da ikasleen kopurua, eta horregatik adinaren batez bestekoa ere igo egin da. Esaterako, 40 pertsona daude 28 urtetik gorakoak.

Formakuntza ikastaroetan ere igoera hori nabaritu duzue?

Bai, etengabeko formakuntza ere asko igo da kopurua. Egungo egoera ikusita jendeak formakuntza

beharrezkoa dela ikusten du. 600 lagun etortzen diragaur egun arratsaldean ematen diren ikastaroe-tara. 60 ikastaro inguru eskaintzen ditugu urtean.

Ikastetxean martxan dituzten proiektuetatik zein azpimarratuko zenituzke?

Iaz *Eginez Ikasi* izenekoarekin hasi ginen. Ikaslea da ikasgai guztiak lotzen eta antolatzen dituen, eta irakaslea aholkularia da. Esaterako, demagun makina bat egin behar dutela. Ba, ikasleak arduratzten dira materiala erostean, segurtasun neurriak jartzeaz, piezak diseinatzeaz, probatzeaz eta bukatzeaz. Hasieratik bukaeraino be-
raiek egiten dute. Pasa den urtean ziklo batean hasi ginen, eta izan zuten harrera eta emaitza ona ikusita, lau ziklotara zabaldu dugu aurten, eta hurrengo urtean ere gehiago izango ditugu. Garrantzitsua da ekimen hau, ikasleek autonomiaz jokatzeko ikasten baitute. Esperientzia oso ona izaten ari da, eta ikasleak askoz ere gustuago daudela nabari da.

Ez da hori iaz hasi zenuten baka-rra.

Pasa den urtean ere *Goikerri* proiektuarekin hasi ginen. Irakas-

le batzuk prestatu ondoren, enpre-
setara joaten dira Formakuntza
Beharren Diagnostiak (DNS) egite-
ra. Honekin ikusten dugu enpresa
batean zein lanpostu dauden, lan-
postu horietarako langileek jakin
beharko luketen guztia ikusten da,
eta horren arabera, zer formakun-
tza litzatekeen eurentzat egokio-
na. Eskualdean dagoeneko 6-8 en-
presatan egin dugu azterketa hori.
Bigarren zati bat ere badu honek,
hobekuntza proiektuak egitea,
hain zuzen. Esaterako, enpresa ba-

«350 ikasle ditugu egun; %25 egin du gora kopuruak, eta ikasleen adina ere handitu da»

ten funtzionamendua hobetu dai-
tekeela uste badugu, proiektu bat
aurkezten diegu. Adibidez, enpre-
sa batek plano ugari zituen gorde-
rik, eta arazoak izaten zituen hori-
ek aurkitu behar zitueneari; gure
irakasle bat joan zen, planoak digi-
talizatzen irakatsi zien, eta baita
plano horiek erraz aurkitzeko pro-
grama bat erabiltzen ere.

Gaur egun zer formakuntza behar- den jakiteko ere baliagarria izan- go da zuzentzat, ezta?

Bai, DNS azterketak oso baliaga-
rriak dira guretzat, zehatz mehatz
jakiten baitugu zer hutsune dau-
gen. Horretaz gain, enpresei ere
galdetzen diegu ea zer formakun-

tza behar dagoen, eta jasotzen di-
tugun proposamenen arabera an-
tolatzen dugu gure eskaintza.

Energiaren alorra ere asko zain- tzen duzuen puntuetako bat da.

Bai. Nahikotasun energetikoa ari
gara lantzen, energia aurreztea be-
harrezkoa delako ingurumenari
begirata eta ekonomikoki ere in-
teresgarria delako. Une honetan,
aurrezki pasiboa ari gara egiten,
leihoak aldatzea, esaterako. Era
berean, zer argi mota ditugun az-
tertu dugu, eta argi berriak jartzen
ari gara. 500 argi jarri ditugu, auto-
matikoki itzaltzeko sistemarekin.
Energia %50ean aurreztuko dugu.
Horrez gain, berokuntza sistema
ere aldatu dugu, eta orain berotu
nahi den eremua soilik erabiltzen
da, energia xahutu gabe. Elektrizita-
teak ikasten ari diren ikasleek egin
dute hori guztia. Gure eraikinean
ez ezik beste batzuetan ere jarri
dugu sistema hori, udaletxean,
esaterako.

Besteek egiten dutena ere aintzat hartzeko ere aintzat hartzen al duzue?

Espainiako beste lau ikastetxere-
kin batera Arce programan ari gara
parte hartzen. Hainbat ikastetxe
aurkeztu ziren euren proiektue-
kin, eta gurea bost aukeratuetakoa
bat izan da. Beste ikastetxeetako
kideekin biltzen gara, ideiak elkar-
banatu, zikloak aztertu eta hobe-
tzeko proposamenak egiten ditu-
gu. Interesgarria da beste ikaste-
txeek zer egiten duten ikustea.

Datorren ikasturterako zer proiektu dituzue esku artean?

Datorren ikasturtean Moodle pla-
taforma martxan izango dugu.
Ikasleek eta irakasleek euren ma-
teriala elkartrukatu ahaliko dute
modu errazean. Gainera, enpre-
tan praktikak egiten ari diren ikas-
leentzat oso baliagarria izango da,

«Azpiegiturak berritzearekin batera, irakasleak formatzea ere ezinbestekoa da»

euren lanaren jarraipena bertatik
egin ahaliko baitute. Bestalde,
LOGSE zena orain LOE izango da
eta horretara ari gara egokitzen. Bi
berrikuntza horiekin batera, mar-
txan jarri berri ditugun proiektuek
ere jarraipena izango dute, noski.

Ikastetxearen ekipamendutik zer nabarmenduko zenuke?

Ekipamendu berriak iritsi zaizki-
gu aurten, soldadurarako robot in-
dustrial bat edota hiru dimentsio-
ko beso neurgailu bat, esaterako.
Gure irakasleak makinak erabil-
tzeko formatu ostean, enpre eta-
ko jendea ere etorri zen horiek iku-
si eta ezagutzera. Soldadurarako
entsugu laborategi bat ere martxan
jartzen ari gara, eta une honetan,
irakasle bat ari da formatzen, sol-
dadurak ondo ala gaizki dauden
zertifikazioak egiteko. Azpiegitu-
ra berritzearekin batera, irakasle-
ak formatzea ezinbestekoa da.

Ikastn zerbitzua ere Lanbide He- ziketa Institutuan dago.

Bai. Eskualdeko formazio guztia-
ren berri ematen du, ikastaroak
antolatzen laguntzen du, eta berak
ere antolatzen ditu. Tolosaldean
Ikastn zerbitzua indar handia har-
tzen ari da eskualdean.

Egungo krisi egoera ere nabaritu al duzue zuek?

Pasa den urtean arte %100 ziren
lana topatzen zuten ikasleak, baina
egungo egoera oso bestelakoa da.
Iaz bukatu zutenetik %50 ari dira
lanean, %38k ikasten jarraitu du,
eta %12 langabezia dago. Egoera
zailean gaude, eta askok ikasten ja-
rraitzea erabaki dute. Ikasketak
bukatu ostean ikasleen jarraipena
egiten dugu, lana aurkitzen lagun-
tzeko edo euren egoeraz galdetze-
ko. Esfortzu hori egitea funtsezkoa
da guretzat, ikasleak lan munduari
lotzea baita gure egitekoa.

Urte askoko esperientzia duzu zentroaren zuzendari bezala.

20 urte daramatzat zuzendaritza-
n, eta aurtengoa izango da azke-
na, erretiroa hartzerako baino. Oso
gustura egon naiz, lan giro polita
baitaukagu, eta hori horrela izanik
da soilik posible lan ona egitea. Zu-
zendaritza osatzen dugunok ederki
ezagutzen dugu ikastetxeoko
funtzionamendua. Egun zuzen-
darioa den Gorka Igartua izan-
go da zuzendari berria, eta zuzen-
daritzak berdin jarraituko du,
orain arteko bidetik. Ziurtasun
osoa dut lan bikaina egingo dutela.

Bihar 11:30ean Zizurkilgo Aundinibar baserriko zelaian, doan, herri kirol jaialdia izango da. Bertan, Jose Mari Zulaika 'Paskualtxo' omenduko dute. Izen handiko herri kirolariek gain, etorkizunekoak ere elkartuko dira. Aizkolariak, harri jasotzaileak, korrikalariak, segalariak eta trontzalariak izango dira. Ondoren Intxaur frontoian, bazkari herrikoia egingo dute trikitilari eta bertsolariekin.

«Lagun artean bilduz, herri kirolei bultzada eman nahi diete eta oso ondo egingo dute»

JOSE MARI ZULAIKA 'PASKUALTXO' Herri kirolaria

Bedaio » Herri Kirol munduan hainbat apustu eta txapelketetan parte hartu du. Kirolari askoren maisua ere izan da.



E. MAIZ

ENERITZ MAIZ

Jose Mari Zulaika (Zarautz, 1938) Zarautzeko Paskualtxo baserrian jaiotzen da. 18 urterekin ikasteko asmoz, Asteasuko Muttei baserriara Eleuterio Tapiarengana joan zen. Bertan 20 urte pasa zituen. Ezkonduz geroztik, Bedaion bizi da. Bihar, Zizurkilgo jasoko duen omenaldia dela eta, berarekin elkartu gara.

Zizurkilgo herri kirol eta kultura munduak omenaldia egingo ditu. Gustura jasoko zenuen berria. Baigustura hartu dut. Nik, herri kirola beti izan dut maitea. Besteak ikustea ere pozgarria izan zait. Bakoitzak bere ahalegina egitea da eta gutxiago denak ere bere lana ondo eginenez gero, beti estimatu behar da. Joan eta gustura ikusi.

Gustura joango zara Zizurkilera. Adin honetan ez da gaztetan bezalako animorik izaten baina gustura joango naiz. Borondate handia jarri dute eta estimatu egingo diet. **Nola jakin zenuen?** Orain dela hilabete pare bat edo. Beraien artean lehenagotik zebiltzan baina nire hitza edo borondatea jakin nahi zuten eta ezer ez nekiala aitari batera gonbidatu ninduten. Eta bertan esan zitidaten.

Zer iruditzen zaizu honelako jai bat prestatzea? Ikaragarri ondo. Erasunei eta entzun diet gainera ez duela horretan geratu behar eta aurrera jarraitu behar dutela. Baztertzen ari direla eta bultzada bat eman nahi diete herri kirolei eta nire ustez oso ondo egingo dute. Hemen ez dago laguntzarik eta bata bestearen babesean, lagun artean bildu eta aurrera egitea beharrezkoa da.

Nor da Jose Mari Zulaika 'Paskualtxo'?

Nik zer esango nizuke. Ni mutil txikia. Nire okerrik handiena altuera izan da. Besoak motzak izan ditut eta harriarekin ibiltzeko asko esan nahi du. Pisu handietarako, indar berdina izanagatik oso ezberdina da. Garai haietan, ez ziren orain bezalako harri modernoak. Behoko barrenean izaten zituzten zuloak. 100 kilotik hasita, harri mota guztiekin jokatu dut eta azkenean 200 kiloko jasotzera iritsi nintzen. Herri kirol mundua gaztetatik estimatua izan dut eta aurren-aurrena idi apustueta ibili nintzen. Gero segan eta harri jasotzen hasi nintzen.

Zer egiten du zarautzar batek Bedaion?

Bai, uraren kontra. Gaztetan Txindoki aldean artzain ere ibilia nintzen eta ingurua ezagutzen nuen. Emakumeek engainatu egiten dute eta [Kar, kar]... eta geroztik Bedaio beti izan dut maitea. **Zer oroitzen dituzu Muttei berriaz?**

Segan ikastera joan eta bertan gelditu nintzen. Muttei baserrian 20 urte pasa nituen. 18 urterekin joan eta 38 urterekin alde egin nuen. Bertan aita eta ama batenak ziren 15 seme zeuden eta ni 16.a. Etxekoa bezalaxe hartu ninduten. Eta gaur ere, familiarekin elkartzen naizenean horrelaxe sentitzen naiz eta hartzen naute.

Kirolari askoren maisu izan zara. Bai. Agustin Landarbide, Erasun, Perurena,... eta beste ere pixka bat erakutsi izan diet. Segan jende as-

«Ahal dudala nire laguntza ez diot inori inori ukatu. Eta gustura egin dut gainera»

gori erakutsi diot eta niregana ere laguntza eske asko etorri dira. Poztu egiten zara. Eta mesedeak egiteko, nire laguntza nik ahal dudala inoiz ez diot inori ukatu. Nire iritzia eman izan dizkiet eta gustura egin gainera.

Nola ikusten duzu Herri kirol mundua.

Nahiko motx ikusten dut. Gaztediak lehen gehiago jarraitzen zuten. Nahiz eta kirol zaleak egon, jarraipena edota zaletasuna lehen baino gutxiago dago, gutxiago sentitzen dute. Gaztediak elkarriz lagunduz, jai honi jarraipena eman diezaiola. Horixe nahiko nuke.

Eguraldi ezin hobearrekin Korputz jaiak aurrera doaz

Anoeta » Bihar bukatuko dituzte Jaiak. Hala ere, gaur eta bihar, herritar guztiek jaietz gozatzeko aukera izango dute.

E. MAIZ

Jaiak ederki pasatzeko, eguraldia ederki laguntzen ari zaie anoetarrei. Atzo XII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak, jubilatuek Toka Txapelketa, buruhandi eta erraldoiak, ume eta helduen play-back-a eta herriko dantza taldearen ikuskizuna izan zituzten.

Gaur, gazteen eguna

11:00etan, herri lasterketa. 12:30ean, buruhandi eta erraldioen kalejira txistulariekin. 15:30ean Mus Txapelketa. 16:30ean, txirrindulari lasterketa. 18:00etan gazteen kalejira. 19:00etan, sagardo dastatzea eta 21:00etan, herri afaria izango dituzte. 23:30ean, gazteen dantza eta Laketen erromeria izango dituzte.



Ume eta helduek play back-a egin zuten plazan. E. MAIZ

» ANOETAKO KORPUTZ JAIK 2010

Ekainak 6, igandea

- **11:00etan.** Gorriren festibala.
- **11:00etan.** Paleta Txapelketako Finalak frontoian.
- **12:00etan.** Buruhandi eta erraldioen kalejira txistulariekin.
- **17:30ean.** Herri Kirolak: Arozetxea ondoko belazean izango da.

Alkiza eta Anoetaren arteko apustu.

- **00:00etan.** Kupela taldearen erromeria, 20:30ak arte plazan.
- **23:00etan.** Kupela taldea.
- **00:00etan.** Zezen Suzkoa eta Kukuaren ioigera. Ondoren, Kupe-laren erromeriarren jarraipena.

Laburrak

Konpartsa herrikoian izena emateko azken aukera

VILLABONA » Oinkari Dantza Taldeak, Agustin Laskurainen laguntzarekin dagoeneko martxan ditu entseguak. Santio jaietan, uztailearen 26an, kaleratuko da konpartsa herrikoia. Danborrada eta dantza uztartuko dituzte aurten, festa informala aurkeztuz. Astelehenero Txermingo Ikastolako ganbaran 20:30etik 21:30era bilduko dira danborrada nahiz dantza entseatzeko. Izena emateko azken aukera astelehenean, hilak 7 izango da, 20:30etik 21:30era entseguan bertan. Dagoeneko 150 partaide animatu dira.

Behar-Zanako pilotari partiduak frontoi berrian

VILLABONA » Behar-Zana Elkarteke pilota eskolako pilotariek hainbat mailatan partidak jokatu dituzte. Txapelketaren finalak edota hirugarren eta laugarren postuetarako sailkatzeak izango dira. Gaur 09:30ean hasiko dira Villabonako frontoi berrian: benjamin aurrekoak, benjaminak, alebinak eta infantilak izango dira.

Fleming herri ikastetxeak gaur ospatuko du ikasturte amaierako festa

E. MAIZ

Fleming ikastetxeko ikasleek goizean goiz hasiko dute eguna. 09:30ean, pala eta eskupilota txapelketako finalak jokatu dituzte. 11:00etan kiroldegian, ikasleek emandaldiak eskainiko dituzte. Bertan, 3 urtetik hasi eta 6. maila bitarteko ikasleak arituko dira.

12:00etatik 13:00etara, beheko eta lehen solairuetan, erakusketak egongo dira ikusgai. 12:45ean, jangelan, bertso emanaldia 5. eta 6. mailako ikasleentzako. Jarraian, 13:45ean, bazkaria egingo dute frontoian. 15:30ean, Guraso Elkarteak antolatuta, ekintza eta taillerak izango dituzte guztiek parte hartu ahal izateko.

Ikastetxetik ohar pare bat eman dituzte: alde batetik haur hezkuntzako ikasleek Arratzainen 10:45erako egon beharko dutela eta bestetik, emandaldi bukatu ostean, ikasleak, gurasoen ardura pean geratuko direla.

Jaiak eta erakustaldiak nagusi

Kultura » San Joan jaietz gain, kultur tailerretako erakustaldiek eta gastronomiak izango dute protagonismoa.

ERREDAKZIOA

Herriko festen hilabetea da ekaina, eta ekitaldirik gehienak jaien inguruan izango dira. Badira, ordea, hilabete honetan pisua hartuko duten ekitaldi gehiago; esaterako, nabari da ikasturte amaieran gaudela dantza, antzerki eta eskulan tailerretako ikasleek ikasi dutena jendaurrean erakutsiko baitute. Bestalde, iragan larunbatean ongietorria egin bazioten ere, bigarren ekitaldi bat egingo diote Edurne Pasaban mendigoizaleari; kasu honetan Alaba Kuttunaren izendapen ofiziala izango da. Antzezlan eta kontzertuetan aukera zabalago izango da, eta baita eskaintza berriak ere, Illargi Coupage izenarekin gastronomia artearekin batzea proposatuko baitute.

Erakustetak

- **Nisa Goiburu.** Naturaldia jardunaldien barruan, *Hala ere, Natura gara* erakusketa Aranburu jauregian, hilaren 12ra arte.
- **Adolfo Tannenbaum.** *Nire kamaratik mundura* argazki erakusketa, hilaren 12ra arte, Aranburu jauregian.
- **Kultur tailerretako erakusketa.** Hilaren 17tik aurrera izango da ikusgai ikastaroan landutako erakusketa, Aranburu jauregian.
- **Txinako txotxongiloetako pertsonaia tradizionalak.** Hilaren 13ra arte izango da ikusgai Topic Txotxongiloen Zentroan.
- **Panpin animatuak.** Hilaren 18tik aurrera izango da ikusgai, Topic Txotxongiloen Zentroan.
- **'Vuelta de Chile: carnet de voyage'.** Hilaren 14ra arte ikusgai, GKo galerian.



San Joan jaien baitan, ohi bezala, bordondantzariak izango dira izarrak. ESTI EZEIZA

■ **Pixel Pancho.** Ekainaren 19tik uztailearen 24ra arte ikusgai, GKo galerian.

Hitzaldiak eta aurkezpenak

- **Bidezko merkataritza.** Alboan elkarrekin antolatuta, hilaren 17an, Kultur Etxean, 20:00etan.
- **Mikel Telleria.** Liburuaren aurkezpena, hilaren 18an, udaletxeko batzar aretoan, 19:30ean.

Azokak eta jaiak

- **Artisautza azoka.** Trianguloa plazan, gaur eta bihar.
- **Tolosa Berdez.** Bihar arte izango da. Herriko bost plazatan berdegune bereziak daude ikusgai.
- **Illargi Coupage.** Gastronomia eta artea uztartuko dituen ekimena, hilaren 7tik 13ra izango da Zerkausian. Ardo datatzak, afariak, bazkariak, pintxoak... Erreserbak: 943 69 74 13 edota tour@tolosaldea.net.

■ **Sanjoanetako azoka berezia.** Hilaren 19an, herriko hainbat guretan.

■ **San Joan jaiak.** Hilaren 24tik 27ra, egitarau oparoarekin.

Ikuskizunak eta musika

- **Kultur Etxeko dantza tailerretako jaialdia.** Hilaren 12an izango da, Leidorren, 18:00etan.
- **Karaimi.** Jaialdi benefikoa, hilaren 16an, Leidor aretoan, 20:00etan. Dantza eta musika izango da.
- **Kultur Etxeko antzerki tailerretako jaialdia.** *Tres sombreros de copa* antzezlan, hilaren 18an, Leidorren, 20:30ean.
- **'Azeriaren alegia'.** Titiriteros de Binefar taldearen eskutik, txotxongilo antzezlan, hilaren 19an, Topic-en, 18:00etan.
- **Tolosa Kantari.** Azken larunbatero bezala, kantu jira izango da hilaren 26an, 12:00etatik aurrera.

■ **Dinero.** Bonberenean eskainiko du zuzeneko emanaldia, hilaren 5ean, 22:30ean.

■ **Nothink.** Bonberenean kontzertua, hilaren 17an, 22:30etik aurrera.

Gaztetxoentzat

- **Haur Liburutegiko udako festa.** Hilaren 18an izango da, 18:00etan hasita.
- **Arcachonera.** Gazte Topagunaren irteera, hilaren 29an.

Bestelakoak

- **Odol emaitzen odol ateratzea.** Hilaren 21ean, Kultur Etxean.
- **Tolosa Beantatuz.** Lehenengo Graffiti eta Mural Lehiaketa GKo galeriak antolatuta, hilaren 18an eta 19an.
- **Edurne Pasaban Alaba Kuttun.** Izendapen ekitaldi ofiziala, hilaren 19an izango da, udaletxeko batzar aretoan.

Laburrak

Organo emaila izateaz informazioa emango dute

GIZARTEA » Alcer Gipuzkoak (Gipuzkoako Giltzurrun Gaixoen elkarte) mahai informatiboa jarriko du gaur, 10:00etatik 13:00etara. Organo emaila izateaz informazioa banatuko dute.

Eskubaloiko teknifikazio jardunaldia gaur, Usabalen

KIROLA » Tolosa CFk eskubaloiko hastapeneko eta teknifikazio jardunaldia antolatuko du gaurko. 10:00etatik aurrera izango da Usabal kiroldegian, eta 1998. urtean jaio diren guztientzat irekia dela azaldu dute.

Kirolari Ateak Zabalik egunaren harira, Usabal erabili ahalko da bihar

ERREDAKZIOA

Kirolari Ateak Zabalik eguna izango da biharkoa, eta horren harira, hainbat ekintza burutuko dituzte bihar, Usabal kiroldegian. Batetik kiroldegiko ateak zabalik izango dira bihar edonorentzat, beraz, bazkide ez direnek ere Usabalo instalakuntzez gozatu ahalko dute.

Bestalde patinaje txangoa ere egingo dute bihar, 11:00etatik 13:00etara. Patinatzea gustuko duen orok parte hartu ahalko du, haurrek nahiz helduek. Usabal kiroldegiko sarreratik hasiko da txangoa, eta bertatik Beñat monitoreak gidatutako ibilbidea egingo dute. Udaletik azaldu dutenez, parte-hartzaileen esku izango da materiala, hau da, patinak, kaskoa eta bestelako babesgarriak.

Urteurrena

XII. urteurrena
INA ZEBERIO
(1998ko ekainaren 5ean eraila)

Mugak haustea izan zenuen helburu. Zure bihotz zabalean milaka pertsonak aurkitu dute aterpe.

Etxekoak



Gaur: 12:30ean ekitaldia Gernikan, eraik zuteneko tokian.
Bihar: Lizartzan 13:00etan ekitaldia monolito aurrean.

LIZARTZAN
2010eko
ekainaren 5ean

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Atzo egindako agerraldian eskualdeko hamar Udal ordezkariak eta Tolosaldea Garatzenekoek hartu zuten parte. M.S.S.

Eskualdeko Udalek Erosketa Berdearen alde sinatu dute

Ingurumena » Tolosaldeko hamazazpi udalerrik hitzarmena adostu dute erosketa eta kontratazio publiko jasagarria egiteko.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko udalerrietako arduradun politikoeek Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen aldeko Konpromisoa sinatu zuten atzo. Ibarako udaletxean egin zuten agerraldia eta bertan izan ziren, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Baliarrain, Elduain, Ibarra, Ikaztegieta, Villabona, Tolosa, Zizurkil eta Tolosaldea Garatzeneko ordezkariak. Hauekin batera beste zazpi udalerrik ere baiezkoa eman diote egitasmoari, Altoz, Amezketta, Anoeta, Asteasu, Belauntza, Berastegi, Larraul eta Irurakoek.

Hitzarmen honekin, Udal ordezkariak argi utzi nahi izan zuten, jendea konpromisoak hartzeko eskatzea, beraiek ere eredu izan

behar dutela. Hori dela eta, hemendik aurrera, ingurumen irizpideak txertatu dituzte beraien jardueretan. Horretarako, hurrengorreetan landuko diren produktuen hautaketa egin da eskualdeko ingurumen eta Agenda 21en teknika-riaren laguntzarekin. Hau, Udal bakoitzak bere errealitate eta funtzionamendura egokitu beharko du. Eskualdean, ondorengo lan irizpideak markatu dituzte: pape-
ra eta inprenta zerbitzuak, bulego-
etako makinak, garbiketarako pro-
duktuak eta zerbitzuak, energia
eta lorezaintza zerbitzuak.

Egitasmo batzuk martxan

Aduna eta Tolosako udal ordezkariak beraien esperientziaren inguruan mintzatu ziren, kontsumo arduratsua bat egiteko, hartu dituzten neurriak azalduz.

Arantza Aburuza Adunako alkateak atzo agertu zuenez, egun, bulegoetan paper birziklatua besterik ez dute erabiltzen, eta kontsumo gutxiko bonbilak ari dira

jartzen, arrunten ordez. Bestalde, Anoetarekin batera, energiaren monitorizazio proiektu bat egin zuten herrian. Hala, herriko hiru eraikinetan (udaletxea, eskola eta aterpetxea) zenbat energia kontsumitzen den neurtzen dute eta webgunean jarri. Honela, gehien zertan gastatzen den ikus dezakete, eta aldaketak non egin aztertu.

Antton Lekuona Tolosako teknikiariak Udalak indarrean dituen neurrien berri eman zuen atzo goizeko agerraldian. Bere hitzetan, paper ekologikoa erabiltzen dute beti, eta zenbat paper gastatzen dute ere neurtzen dute. Bestalde, inpresora txikiak, hau da banakoak kendu eta solairu bakoitzean handi bakar jarri dute. Bartzorde-
etako akte dagokionean ere, pape-
ra aurreztearren, ez dituzte in-
primatzen eta emailaz banatzen di-
tuzte. Garbiketa produktuak erabiltzeko garaian ere arduraz jo-
katzen dutela azaldu zuen eta kale argiztapenean ere aldaketak egin dituztela.

Tolosako Orfeoia kontzertua eskainiko du

Musika » San Joanen baitan, hilaren 12an, Tolosako Santa Klara elizan eskainiko dute kontzertua, 20:30ean.

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoia San Joanetako Kontzertua eskainiko du ekainaren 12an, larunbatean, 20:30ean, Tolosako Santa Klara elizan.

Giochino Rossiniaren *Petite Messe Solennelle* interpretatuko dute Ignacio Ruiz de Alegriaren

musika zuzendaritzapean. Bertan Javier Perez de Azpeitiak (Pianista) eta Ana Belen Garciak (Harmo-
nium) egongo dira. Hauekin bate-
ra, Amaya Arberas (Sopranoa), Be-
atriz Galvez (Mezzosopranoa),
Gaizka Gurrutxaga (Tenorea) eta
Pablo Garciak (Baxua) hartuko
dute parte kontzertu paregabe ho-
netan.

Informazio gehiago nahi du-
nak Tolosako Orfeoia web orri-
ra joateko nahiko izango du, hau
da, www.tolosakoorfoia.com
webgunera. Kontzertua joateko
deia ere egin dute.

Urkizu gaur lehiatuko da paletako Kutxa Sarian

Paleta » Emakumeen Paleta Argentinarreko txapelketa joan den astean hasi zen eta bertan ari dira Arozena eta Urkizu.

ERREDAKZIOA

Joan den igandean hasi zen Iru-
nen Emakumeen Paleta Argenti-
narreko Kutxa Saria. Bertan, es-
kualdeko bi palista ari dira parte
hartzten, Lizartzako Nagore Aro-
zena, eta Berastegiko Itxaso Urki-
zu.

Lehen saioan, Haizea Zamora-
rekin batera, 30-25 galdu zuen

Arozenak, Patri Espinar eta Maite
Ruiz de Larramendiren aurka.

Bihar, Irungo Ramuntxo Berri
trinketean jokatu da bigarren
kanporaketa eta bertan, beste bi
partida ikusteko aukera izango da.
11:30ean hasiko dira norgehiago-
kak. Hor, Urkizu eta Severine Gra-
ciet-ek Arozenaren joan den aste-
ko aurkariak izango dituzte kon-
tra. Hau da, Patri Espinar eta
Maite Ruiz de Larramendi.

Espinar-Ruiz de Larramendi-
ri garaipenak finalerdietarako zuz-
neko txartela eta taldeko lehen
postua ziurtatuko lizkieke. Partida
estu, bizi eta oso lehiatua izatea es-
pero da biharkoa.

Antzientzaren kategorian
artikulu guztiak,
ekainaren 21a
bitartean, bidalketa
gastuak doan!

skunkfunk

www.euskalherriko
plaza.com

kot

traju carak

Euskal Herriko Plaza
Gasteiz

EHnet/PLAZA

www.berria.com

Euskal sukaldaritzaren
errezeta ezagunenak
José Castilloaren
eskutik

EUSKARAZKO
LEHEN
SUKALDARITZA
BILDUMAREN
3. alea

berriarekin
eskaintza
berezia

Aurreko bi aleak
ez badituzu esuratu,
eskatu orain.
Hirugarren
alearekin batera
jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA
ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea
FAGOR

AUKERTA 62302L
9174 EUSKALDARITZA
berria



26°
13°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Idaia: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** Artisanautza Azoka Trianguloan. 20 artisaustu, tartean 3 tolosarrak (Tartalo, Zuentzart eta Arantza Munita keramika).

Gastronomia

■ **Tolosa.** Azokak + KM0 Trianguloan 12:00etan: Zerkausian erositako ilarrarekin egindako plateren dastaketa. Sukaldariak Illarra jatetxeko Joxean Eizmendi, Roxario jatetxeko Txaro Azpiarin, Zuberoa jatetxeko Hilario Arbelaitz eta Fronton jatetxeko Roberto Ruiz.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Alcer Gipuzkoak (Gipuzkoako Giltzurrun Gaixoen Elkarte) 10:00etatik 13:00etara San Frantzisko elizaren ondoan mahai jarriko du organo emaile izateaz informazioa emateko.
■ **Tolosa.** Independentziaren aldeko sarearen aurkezpena Kultur Etxean 10:30ean. Informazioa: www.independentistak.net.

Ingurumenaren eguna

■ **Aduna.** Ingurumenaren eguna: Ursaltoko erreka azterketa 10:00etan plazatik abiatuta; 12:15ean udaletxeko kultur aretoan *Glup! Zabor bizidunak* pelikula; 17:00etatik 19:00etara Ttanttoren jolasa LHko 4, 5 eta 6. mailako ikasleei zuzenduta, urari buruzko Antzararen jolas dinamikoak.
■ **Alkiza.** Aste Berdea: intsektu autotomaten tailerra Kultur Etxean 10:00etan. Inguruko txorien deskribapena eta kantua jasotzen duen lanaren aurkezpena.

Ikastetxeen festak

■ **Ibarra.** Uzturpe Ikastolaren Eguna: 11:00etan ikasleen jaialdia, 12:30ean pilota partidak frontoian; 14:00etan bazkaria; 15:30etik 18:30era gaztelu puzgarriak; 16:00etan Toka Txapelketa;

16:30etik 18:30era dantzaldia DJ Garirekin, ondoren sokatira.

■ **Tolosa.** Samaniego Herri Eskolan ikasturte amaierako festa: 12:00etan ikasleen emanaldia; ondoren haur jolasak eta bazkaria; Egan taldearekin dantzaldia eta txokolatada.

■ **Villabona.** Jesusen Bihotza Ikastolaren ikasturte amaierako festa: 14:00etan pilota eta frontenis partidak frontoi berrian eta futbola Txerminen; 16:00etan Mus eta Xake txapelketak Txerminen; 16:00etan XVII. Krossa Txerminen; 16:30ean ikasleen emanaldia eta jolasak; 17:00etatik 19:00etara eskulan eta argazki erakusketa ikastolako 3. pisuan; 18:00etan pailazoak ganbaran; 18:15ean guraso eta seme-alaben arteko jolasak; 19:30ean tonbola eta trikitixa; ondoren afari-merienda Ikastolaren arkupeetan.

Jaiak eta urteurrenak

■ **Alegia.** Txintxarri Eguna: 11:00etan haurrentzako musika tailerra Txintxarri Plazan; 12:00etan kalejira Loatzo eta Txintxarri abesbatzarekin; 14:00etan herri bazkaria; 17:00etan Kerian eta Oinazez taldeak plazan; 19:30ean alboka poteoa; 20:30ean zahagiardia; 21:30ean Bertsokeriak, Ziklo Garaialde eta Manillares Iturriaga Tontokalen; 00:30ean Itzel taldea plazan.

■ **Anoeta.** Herriko jaiak. Gazteen Eguna: 11:00etan Herri Lasterketa, ume, gazte eta helduentzat. Plazatik abiatuko da; 12:30ean buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariekin; 15:30ean Mus Txapelketa; 16:30ean Txirindulari Lasterketa, Oriako Txirindulari Eskolak antolatutik (alebin eta infantil mailakoak); 17:30ean judo emanaldia kiroldegian; 18:00etan gazteen kalejira dantza eginez; 19:00etan sagardo dastatzea, txo-

rizo egosia eta gazta pintxoekin; 21:00etan Herri Afaria frontoian; 23:30ean Gazteen Dantza plazan; ondoren Laket taldearekin erromeria plazan.

■ **Villabona.** Behar zana elkartearen 64. urteurrena: 09:30ean pilotan partidaren finalak Bearzana frontoian; 10:00etan I. Xake Txapelketa azkarra elkartearen; 17:00etan Joko Garbiko partidak; 18:00etan buruhandiak eta erraldoiak; 19:00etan hildako elkartekideen aldeko meza; 20:00etan bazkideentzako afaria elkartearen; 23:00etan Behar Zana elkartetik atera eta danborra herrian zehar, Incansables txarangarekin.

Kirola

■ **Asteasu.** Eskola kirola Eguna: 09:30ean Asteasu-Zizurkil goia futbol partida Pello Errota ikastetxean; 11:00etan saskibalo partidak eta 11:30ean ginkana.

Kultur Astea

■ **Leitza.** Musun Bordaren aldeko festa: Euskal Herria kantari herriko plazan 18:00etan, Kultur Astearen barruan.

Musika

■ **Tolosa.** Diner eta Zain musika taldeen kontzertua, 22:30ean Bonberenean.

Zinema

■ **Herriko jaiak.** Leidor aretoa: 19:30ean, *Fish tank* filma, eta 22:30ean, *Noche loca*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Kalean da Emon-en lehen diskoa

IBARRA ■ Emon talde gazteak *Piztu herria* izeneko bere lehen lana kaleratu du, Babel Musik zigilupean. Doinu dantzagarri osatutako diskoa dakar. Aurkezpen lan hau, ska, reggae eta rockaren nahasketa bezala azal daiteke. Hala ere funkyaren edota cumbiaren ukitu bereziak ere baditu. Festarako musika da beraien ardatza eta doazen lekura doazela jendea dantzaztea dute helburu. Zortzi kidez osatuta dago taldea, eta ahotsean, ibartar bat, Oihane Sarasola. HITZA

A Agurrak



Zorionak!

Katalin. Zorionak amona! Ondo pasa zure egunean, familaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Geltoki kalea,
1 behea
20400 Tolosa
Gipuzkoa



- Laserra -
- Hortz-zuritzea -
- Implanteak -
- Hiru dimentsiotako radiologia digitala -

Telf.: 943 249 882 aarbilloga.hortzzerbitzua@gmail.com ZBKIA: 20000825

HEZKETA ZIRKLOAK

- Erdi mailako zirkulak
- Mikroskopio
- Instalazio elektriko eta automatizazioak
- Telekomunikazio instalazioak
- Gortzako zirkulak
- Fabrikazio mekanikoko disonua
- Instalazio elektroteknikoak

IES Hernani BHI
A. Iturrigo - K. Labaka

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

- Mekanizazioko langilea
- Erakunde jarduerarako eta merkatu partetaren eraketarako zaindariak laguntzailea
- **Ekintza asagertak:** Proiektu asagertak: Leonardo eta Erasmus
- Lan jaitza
- Giza balakideak: ikasketen itzargabeko prestakuntza eta ikasketen bideraketa orientatuta
- Enpresa eta enpresa: Ordea, Itzaz, Naxos
- Sektoroko aplikatzaileak: Ferriatzen, Bihotzi BIEMH, Madriga Malesak

BESTE PRESTAKUNTZAK:
ESKANITZA PARTIDALA:
Elektrotale familia

SARBIDE PROBA
HOBIETUZ: Langileen itzargabeko prestakuntza

LANBIDE: Langileen prestakuntza
Mekanika eta elektrotale familia

OGALAN: Gela Instrukzioa
Enpresen enketaren anbertako ikasketak

Santa Barbara auzoa, zg. Tlhoa: 943-65 11 88 + K. Labaka, 7. Tlhoa: 943-6519 58 + 20120 - HERNANI (Gipuzkoa)
E-maila: institutua@hernanibhi.com / www.hernanibhi.com

AUREMATRIKULA EPEA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

Uxola Sariak 2010

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



LITERATURAREN JAIA

TOLOSA 1981. urtean hasi zen San Juan Literatur Lehiaketa, hasierako urte haietan edozeinek hartu ahal zuen parte, baina 1986ko martxoaren 18an 'Uxola' hil zenean, Uxola Sariak izena hartu zuen lehiaketak.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila: Olerkia

'Zelai polita'

ITSASO OREJA MITXELENA › 1. saria

Zelai polit honetan daude
krabelin ugari
bere alboan berriz,
lili eder gorri,
bere gainean dabilta
bi erle hegalaria,
zein ederki dabilta
haizearekin dantzari

Zelai polit honetan daude
ziza ugari
haien bila berriz
aitona Juan Mari,
asko bilatzen baditu
guretzat janari
sobratzen badira
gurera etorri

Zelai polit honetan daude
Itsaso eta Mirari
gustura dabilta
barre eginez elkarri
lilien ondoan
etzanda jarri,
eguzkipean egin dituzte
amets ugari



HITZA

'Nire akordeoia'

**ARANTXA GARIKANO
LOPETEGI** › 3. saria

Nire akordeoia
bai dela astuna!
Asko maite dut baina,
jotzeko hau lana!

Hauspoa irekita
botoiak jotzean,
soinua irteten da
ederra benetan!

Eskuinaz jotzea,
nahiko erraza da!
Ezkerrari lotzea
ordea, zaila da!

Jendearen aurrean
jo behar denean,
ai ze nolako lotsa,
nire barrenean!

Notak begi aurrean,
gora eta behera!
Behatzek botoietan
egiten dute dantza!



HITZA

'Uraren bizia'

NAIA IMAZ MATEOS › 2. saria

Egun goibela da
duguna gaurkoa,
zerura begira
pasa dut denbora

Bertan ikusi dut
tanto bat galduta,
berak egin nahi du
etxeko bidea

Zeharkatu ditu
baso ilunenak,
iragango ditu
lautada zabalak

Azkenik heldu da
pozik itsasora,
gora doa orain
berriro zerura



HITZA



kutxa

TOLOSAKO



UDALA